

LAIAskola ikasturte honetan ehun jarduera baino gehiagorekin finkatuko da kuadrilla guztietan, eta lehenengoz iritsiko da Trebiñura

3.000 pertsona inguruk parte hartu zuten iaz Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolan, zeinak aurtengo irailean bere bigarren urteurrena beteko baitu

Gasteiz, 2018ko irailaren 17a. LAIAeskola Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola datorren udazkenetik aurrera emakumeek parte hartzeko eta emakumeen jabekuntzarako ekimenak sortzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako tresna gisa finkatuko da ehun ekintza baino gehiagorekin Arabako kuadrilla eta herri guztietan. Horiek horrela, 2016. urtean abian jarri eta bi urte geroago LAIAeskola lehenengoz iritsiko da Trebiñuko enklabera, eta horrela behin betiko esan ahalko da Arabako kuadrilla guztietan ezarri dela.

Nekane Zeberio Diputatu Nagusiaren Kabineteko zuzendariak gaur goizean aurkeztu ditu prentsaurrekoan LAIAeskolako ikasturte berriko programazioaren berriak. (www.laiaeskola.eus)

Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren arduradunak gogorarazi du ikasturte honetan LAIAeskolak bere xedeetako batekin aurrera jarraituko duela; hau da, *“emakumeen jabekuntzarako prozesuetan laguntzea, haien parte hartze soziopolitiko indartuko duten tresna eta ekimenen bidez, eta era berean, oro har emakumeekin eta gizonekin lan egiten ari gara berdintasunaren alde, eta hori guztia eskubideen ikuspuntuan oinarritua, kultura arteko elkarriketa prozesuetan lagunduko duena”*.

Nekane Zeberio garrantzia eman die LAIAeskolako bi ezaugarri nagusiei: lehenik eta behin, paregabea da Euskadiko jabekuntzarako eskolen artean, udalaz gaindikoa baita, eta kuadrillak, udalerriak, herriak eta elkarte mugimenduak biltzen ditu Araba guztia hartzeko, eta bigarrenik, parte hartze eskola bat da, sozializazio prozesuen bidez diseinatua, eta horretarako, lurraldeko eragile politiko, tekniko eta asoziatiboak engaiarazten ditu.

Arabako Jabekuntzarako Eskola agintaldi proiektuaren barruan kokatua dago, Arabako Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako 2016-2020 IV. Foru Planean, eta Arabako Foru Aldundiak hedatutako beste ekintza askoren osagarri da, hala nola berdintasun teknikari emakumezkoak kontratatzea kuadrilla bakoitzean, indarkeria diagnostikoak egitea, eta esku hartze protokoloak egitea indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko.

Era berean, nabarmendu du ezen ia 3.000 lagunek parte hartu zutela iaz Araba guztian egin ziren 113 jardueretan, haietako asko desberdinak kuadrilla bakoitzean, talde eta errealitate soziokultural desberdinek planteaturiko interesen arabera. Horri erantsi behar zaio jardun birtual bizia dagoela interneten eta sare sozialetan, eta hileroko aldizkari digital bat argitaratzen dela.

Ikasturtearen inaugurazioa Argantzonen

Eskolaren ikasturte berriaren programazioak lerro estrategiko desberdinei jarraituko die: feminismoak, emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzea, sexu eta genero identitateak, subjektibotasuna eta balio aldaketa, kultura artekotasuna eta solidaritatea, kultura berriz ere definitzea, komunikazioa eta gizarte trebetasunak, ekonomia feminista, jabekuntza soziopolitikoak eta jarduera estrategikoak lurralde guztian, kuadrillaka nabarmenduak, besteak beste.

LAI Aeskolako ekintzek arlokako gune eta testuinguru asko eskaintzen dituzte, eztabaida, hausnarketa eta ikaskuntza sustatzeko emakumeen berdintasuna eta jabekuntza kontuan izanda. Aurten, ikasturtearen inaugurazio ofizialarekin batera hasiko da martxan, hilaren 21ean, Trebiñuko enklabean, Arabako Foru Aldundiaren eta Burgosko Probintzia Diputazioaren arteko lankidetzari esker, xedea baita aurrera egitea berdintasun politika egonkorra eta Trebiñuko Konderriko udalerrietako eta Argantzoneko errealitatera egokituak garatu eta finkatzean.

Ikasturte berriaren programazioa

- Ikasturte honetako programazioan, nabarmendu behar dira urtero kuadrilletan egiten diren emakumeen topaketak, non herri guztietako emakumeak biltzen baitira interes handiko gaiei buruz hitz egiteko, eta parte hartzeko diseinatuta daude. Hurrengo topaketak Gesaltza Añanan, Donemiliagan eta Aiaran egingo dira.

Prentsa Oharra Nota de Prensa

- "Ordu bioleta" irakurketa klub feministak finkatu egin dira eta gero eta gehiago dira urtetik urtera. Aurten, hirugarren edizioa izango da Arabako Lautadan, bigarrena Guardia-Arabako Errioxan, Kanpezu-Mendialdean eta Gorbeialdean, eta 2018. urtea bukatzeko, beste hiru klub jarriko dira martxan Aiaran, Añanan eta Trebiñun. Halaber, euskarazko beste bi irakurketa klub egongo dira.
- Ikasturte honetan, autodefentsa feministako lantegi gehiago egongo dira eta maila handiagokoak: beste 15 lantegi emango dira, eta haietatik hiru maila aurreratukoak izango dira.
- Gorbeialdeko, Arabako Lautadako, Guardia-Arabako Errioxako eta Aiarako kuadrilletan berdintasunerako foro bana dago, eta aldizka biltzen dira, haien errealitate hurbilenetan parte hartu eta haietan eragiteko, feminismoa oinarri. Ikasturte honetan, Kanpezu-Mendialdeak eta Añanak ere parte hartuko dute.
- Indarkeria matxistari aurre hartzea oso presente dago LAIAeskolako ekintza formatu desberdinetan: eskualdeetako topaketak, autodefentsa feministako lantegiak edo jabekuntzarako beste lantegiko batzuk lurralde guztian, "Elkarrizketak" edo arloa ezagutzen duten adituak. Gainera, beste hauen bidez ere lantzen da: Berdinzimema zineforuma, literatura irakurketa klub feministetan, edo gazteei bideratutako "Hitz kolpez" indarkeriaren sensibilizazio eta prebentzio kanpaina, Arabako ikastetxe guztietako geletan.
- LAIAeskolak zeharka lan egiten du jabekuntzari eta berdintasunari laguntzeko lankidetzaren eta kultura artekotasunaren bidez, hainbat ekimen martxan jarrita, hala nola Nikaragua eta Gambiarekin loturikoak, eta era berean, ZAS! Zurrumurruei Aurkako Sarea - Red Vasca AntiRumores ekimenarekin estu ari da lanean, zurrumuru sexisten aurka ere borrokatzeko.
- "Kontzejuei irekitako Batzarrak 2017" kanpainaren ondoren, LAIAeskolak sakontzen jarraituko du emakumeek kontzejuetan daukaten eragin soziopolitikoaren lerro estrategikoetan, hainbat parte hartze lantegi eta mahai inguru eginda arloaren inguruan, lurraldean zehar, 2019. urtean.